

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO
GRADUDUN TITULURAKO PROBA LIBREAK**

Gizarte Zientzien esparrua

DATU PERTSONALAK

Deiturak:..... Izena.....

NANa.....

Helbidea: kalea/plaza.....zk.....PK.....

Herria..... Probintzia..... Telefonoa.....

Deialdia: 2011ko maiatza



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

7. Definitu eta zehaztu ondoko terminoak **(atal bakoitzeko puntu 1).**

a) "BIZIRAUPENERAKO NEKAZARITZA".

b) "BPG" (BARNE PRODUKTU GORDINA).

c) "EZKUTUKO EKONOMIA".

d) "ERROLDA".

8. Ondoko zutabeak lotu

(2 puntu)

		ERANTZUNA
1.- KARLOMAGNO	A).- Tenorra	1 --- E)
2.- ANTSO VII.a AZKARRA	B).- Karlisten Jenerala	2
3.- D. RODRIGO	C).- Eskultorea	3
4.- JOSÉ M ^o IRIBARREN	D).- Navas de Tolosa	4
5.- JORGE OTEIZA	E).- Orreaga	5
6.- ZUMALAKARREGI	F).- Guadalete	6
7.- JULIAN GAIARRE	G).- Nafarroako hiztegia	7

9. Taula osatu

(2 puntu)

Estatua	Hiriburua	Kontinentea	Hizkuntza
Haiti			
Erresuma Batua			
Australia			
Indonesia			

10. Lotu kontzeptuak dagokien definizioarekin

(3 puntu)

*AUTARKIA**RISORGIMENTO**SUFRAGISMOA**MERKANTILISMOA**DESAMORTIZAZIOA**FAXISMOA*

“Aberastasuna pilaturiko urre eta zilar kopuruaren araberakoa da”.	
“Elizaren lurak desjabetzea”.	
“Emakumeen boto-eskubidearen aldarrikapena”	
“Gobernu era autoritarioa”.	
“Ekonomia autosufizientea”.	
“Italiar kultura-mugimendua”	

11. Testu honen iruzkina egin eta galderei erantzun.

(Galdera bakoitzeko puntu 1)

Testua: “Afganistango inbasioa”.

Sobietar ekonomiaren gaineko presio militarrek era arriskutsuan egin zuen gora 1980tik aurrera, aspaldiko partez sobietar armada zuzenean guda batean sarturik baitzegoen.

Indar armatuak igorri ziren Afganistanera, herrialde hartan nolabaiteko egonkortasuna bermatze aldera. 1978tik Afganistan gobernatzen zuen Herriko Alderdi Demokratikoa (bertako komunistek osatua) lehian zeuden bi zatitan banatu zen. Biek ere aurka egiten zieten bertako lur-jabeei, klero musulmanari eta aldaketarik nahi ez zuten beste batzuei, nekazaritza-erreforma eta emakumeen eskubideak bezalako neurriekin. Berrogeita hamargarren hamarkadaren hasieratik herrialdea lasai egon zen sobietar eraginpeko esferan, eta horrek ez zuen Mendebaldea bereziki asaldatu. Haatik, Estatu Batuek erabaki zuten sobietarren esku-hartzea “mundu librearen” aurka zuzendutako erasoaldi militar handia zela.

E.J. Hobsbawm (“XX. mendeko Historia, Kirititika”)

Galderak:

- a) Idatzi testuko ideia nagusiak.
- b) Azaldu zer izan zen “GERRA HOTZA”. Esan noiz hasi zen eta aipatu gatazka garrantzitsuren bat.
- c) Zer da NATO? 2001etik aurrera NATOk Afganistanen egindako esku-hartzeak zein helburu du eta nolako ondorioak ditu?

GIZARTE ZIENTZIEN PUNTUAZIOA OSOTARA: 20 PUNTU
